



**ERAKUNDE ADIERAZPENA,
EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIAREN KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA**

2017KO AZAROAREN 25a

Gobernu Kontseiluak, 2017ko azaroaren 21ean egindako ohiko bilkuran, honako erakunde adierazpen hau onartu du azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako eguna dela eta.

Emakumeen kontrako indarkeria da askatasunaren aurkako eraso handienetako bat, gure gizartean oraindik ere ageri-agerian dagoena. Gizarte demokratiko batean onartezina da indarkeria hori emakumeen —alegia, biztanleen % 50en— egunerokotasunaren parte izatea.

AFAk dei egin nahi die Araba osoko emakumeei eta gizonei konpromisoa har dezaten indarkeria matxista errotik mozteko. Horixe islatzen du kanpainaren esloganak: “Moztu dezagun errotik! Har ezazu parte”. Konpromiso horrek, errealitatea eraldatu dezan, barneratuta egon behar du, eta berekin ekarri behar du ohartzea sexismoak zer nolako eragina duen norberaren bizitzan, eta emakumeenganako jokabide eta jarrera baztertzailak identifikatzea eta arbuiatzea, askotan justifikatu eta, “normaltzat” harturik, zuritu eta garrantzia kentzen zaienak. Kanpaina honetan indarkeria matxistaren agerpen horiek nabarmentzen dira: jokabide bidegabe eta umiliagarriak, bizikidetzaren kalterako eta giza eskubideak errespetatzearen kontrakoak direnak.

Konpromiso hori, halaber, ikusgarri egin behar da gizartean, indarkeria matxista esplizituki arbuiatuz bizikidetzako eremu desberdinetan, hurbilenekoetatik hasi eta zabalenetara: familia, lan ingurunea, ikastetxeak, komunikabideak, kultura eta kirol esparru eta agerraldiak, egitura politikoak eta gizarte antolamenduak, besteak beste. Gogoan izan dezagun emakumeen

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN EL DÍA
INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA
HACIA LAS MUJERES**

25 DE NOVIEMBRE DE 2017

El Consejo de Gobierno, reunido en sesión ordinaria celebrada el 21 de noviembre de 2017, ha aprobado la siguiente Declaración Institucional con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres:

Las violencias contra las mujeres constituyen uno de los mayores atentados contra la libertad que persisten en nuestra sociedad. En una sociedad democrática es inaceptable que formen parte de la cotidianidad de las mujeres, esto es, del 50% de la población.

La DFA quiere hacer un llamamiento a las mujeres y a los hombres de la geografía alavesa a comprometerse en la erradicación de la violencia machista. Así lo refleja el eslogan de la campaña: “¡Cortemos de raíz! Implícate”. Este compromiso, para que sea transformador de la realidad, ha de estar interiorizado y pasa por una toma de conciencia sobre la influencia del sexismo en la propia vida, por la identificación y el rechazo de actitudes y comportamientos discriminatorios hacia las mujeres que muchas veces se justifican y se disculpan como algo “normal” a lo que se le quita importancia. En esta campaña se pone el énfasis en esas manifestaciones de la violencia machista: comportamientos injustos y degradantes, contrarios a la convivencia y al respeto de los derechos humanos.

Ese compromiso también ha de visibilizarse socialmente, con el rechazo explícito de la violencia machista en los diferentes ámbitos de la convivencia, desde los más cercanos a los más amplios: la familia, el entorno laboral, los centros educativos, los medios de comunicación, los espacios y manifestaciones culturales y deportivas, las estructuras políticas, las organizaciones sociales,



kontrako indarkeria ez dela emakumeen eta gizonen arteko parekotasunik ezaren zergatia, baizik eta gizarte honetan parekotasunik ez hori oraindik ageri-agerian dagoela erakusten duen ondorioz nabariena.

Arabako Foru Aldundiak irmoki gaitzesten ditu indarkeria agerpen horien guztien oinarrian dauden jarrera matxistak. Era berean, indarkeria hori errotik kentzeko konpromisoari eusten dio, eta behar diren baliabideak emango ditu zenbait jardun abian jartzeko, helburu izango dutenak indarkeriaren askotariko agerpenak arbuiatzea eta tratu onean oinarritutako harremanak eraikitzea pertsonen artean.

Alde horretatik, erakunde honek herritar guztiak animatu nahi ditu elkarteek, kolektiboek eta beste erakunde batzuek indarkeria horiek salatzen dituzten ekitaldi ugarietan parte hartzea.

Amaitzeko, Gobernu Kontseilu honek dei egiten die gizarte osoari eta erakunde guztiei Aldundiaren Jauregiaren aurreko harmailetara etor daitezen, azaroaren 24an, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako elkarretaratze isil batean parte hartzea.

Gasteiz, 2017ko azaroaren 21a.

etc. No olvidemos que la violencia contra las mujeres no es la causa de las desigualdades entre mujeres y hombres, sino la consecuencia más manifiesta de que esa desigualdad todavía está presente en nuestra sociedad.

La Diputación Foral de Álava manifiesta su enérgica repulsa ante las actitudes machistas que están en la base de esas violencias. Asimismo, reitera su compromiso en la lucha para su erradicación, disponiendo los recursos necesarios para poner en marcha actuaciones cuyos fines sean el rechazo a sus diferentes manifestaciones y la construcción de relaciones entre las personas basadas en el buen trato.

En el mismo sentido, esta institución anima a toda la ciudadanía a participar en los múltiples actos de denuncia de las violencias mencionadas, organizados por asociaciones, colectivos y otras instituciones.

Para finalizar, este Consejo de Gobierno hace un llamamiento al conjunto de la sociedad y a las Instituciones a acudir a las escalinatas del Palacio de la Diputación, el día 24 de noviembre, en una concentración silenciosa de rechazo a la violencia contra las mujeres.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 2017